

ITZULPENA¹

Araua: 2006/22/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2006ko martxoaren 15ekoa, errepide bidezko garraio-jarduerei buruzko gizarte-legerian Kontseiluko 3820/85 (EEE) eta 3821/85 (EEE) Erregelamenduak aplikatzeko gutxieneko baldintzei buruzkoa, eta Kontseiluaren 88/599/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena.
(Testu egokia EEeri dagokionez)

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik; itzulpenak ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DIRECTIVA 2006/22/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 15 de marzo de 2006 sobre las condiciones mínimas para la aplicación de los Reglamentos del Consejo (CEE) no 3820/85 y (CEE) no 3821/85 en lo que respecta a la legislación social relativa a las actividades de transporte por carretera y por la que se deroga la Directiva 88/599/CEE del Consejo*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 102 de 11/4/2006)

ADIERAZPENAK

Arau-hauste larrien sailkapenari dagokionez, Batzordeak adierazten du errepide bidezko garraio-sektorean gizarte-arloko zenbait xedapen bateratzeari buruzko Erregelamenduko arau-hauste larriak honako hauek direla, besteak beste:

- 1) egunean gidatzeko dauden gehieneko denbora-tarteak gainditzea, sei edo hamabost eguneko tartean % 20ko aldearekin edo alde handiagoarekin;
- 2) egunean edo astean atsedean hartzeko dagoen gutxieneko denbora-tartea kontuan ez hartzea, % 20ko aldearekin edo handiagoarekin;
- 3) gutxieneko etena aintzat ez hartzea, % 33ko aldearekin edo alde handiagoarekin;
- 4) 3821/85 (EEE) Erregelamenduko eskakizunak betetzen ez dituen takigrafo bat jartzea.

Batzordeak eta Estatu kideek beren esku dagoen guztia egingo dute, Zuzentarau hau indarrean sartzen denean hasi eta bi urteko epean, AETRren xedapenak Zuzentarau honetara egoki daitezen. Tarte horretan egokitzapenik izaten ez bada, Batzordeak neurriak proposatuko ditu egoera konpontzeko.
